

TXIKITTO

2008-11 • 99. zenbakia



Hilero-hilero
ANTZERKIA

Berriak

La Salleko 4 eta 5 urteko neska-mutilek Amañako zine aretoan, "Franklin dortoka" izeneko filma ikusi zuten. Luze samarra izan arren, oso ondo pasatu zuten. 6. maiakoak, berriz, Eibarko Herri Irratiko programa batean parte hartzera gonbidatuak izan ziren, aurretik irratiani buruzko idazlan batzuk aurkeztu zituztelarik.

Hilabete honetan, bestetik, AGENDA 21eko maskota lehiaketa antolatu dute ikastetxean. Maskota honen izen hautaketa hurrengorako lagako dute. Informatuko zaituztegu!

Hilaren 10ean, bestalde, beste urtetan bezala eta herriko ohiturei eusteko, GAZTAINERRE eguna ospatu zuten gaztainajana eginez, aurreko astean zehar egindako hainbat ekintzei erremate aproposa emateko, alegia.



Trimestre honetako **zapatuetako tailerrak** asteburu honetan, azaroaren 22an zehazki, amaituko dira. Horrela, umeek jostailuak egin, dantzatu, bulogo tresnak dekoratu, xaboi eta kandelak dekoratu, eta abalorioak egin ahal izan dituzte.



Azaroan gaude jada **Arrateko Andra Marin** ere. Eguraldi txarra eta gu lan eta lan. Urriaren 22an 4 eta 5 urtekoak Amañako zinera joan ziren "Franklin" filma ikustera. Bitartean, 5. eta 6. mailakoak "Odol emailen tailerlean" aritu ziren. Oso ekintza polita eta interesgarria. Urriaren 29an 1. eta 2. mailakoak joan ziren zinemara; hauek "Pepper" ikusi zuten. Tarte honetan Papiroflexia ere izan dugu eskolan. Orain 3 eta 4. mailakoak Xakean ari dira jo eta sua. Bertsoak ere hor ditugu San Andres inguruan eta Gaztainerre eguna oso giro onean ospatu genuen, eguraldiak ere lagundu zigularik. Besteok ere gu bezain ondo eta langile ibiliko zarete, ezta?



ARGITARATZAILEA: " ...eta kitto!" Euskara Elkarte, Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar. Tel: 943 206776.
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Ekhi Belar, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte.
ERREDAKZIOA, MAKETAZIOA ETA BANAKETA: Ekhi Belar, Ainhoa Luz eta Koldo Mitxelena.



Urkizu eskolako Haur Hezkuntzako, eta 1. eta 2. mailako haurrak "Maria" eta "Otsa" jolasak praktikatzen ari dira egunero. Nork nahi du eurekin jolastu?

Urriaren 13tik 17ra bitartean, bestetik, Urkizu eskolan egin zen euskara kanpaina ikasle askok "Euskara domina" lortu zuten. Urriaren 20 eta 25ean, bestalde, Breakdance ikastaroan parte hartu zuten 3. zikloko ikasleek. Horrela, pausoak ikasi eta koreografiak asmatu zituzten.

Urriaren 24an Urkizuko 5. eta 6. mailako ikasleek Ekainberri ezagutzeko parada izan zuten. Zenbat gauza interesgarri ditugun inguruan! Azaroa ere ekintzaz beterik daukate Urkizukoek. 10ean 'Gaztainerre eguna' ospatu zuten eskolan, 4ean 5. eta 6. mailakoek esgrima saioa izan zuten, 13an 3. eta 4. mailakoek 'Euskal kirol eta jolasak' saioa izan zuten, eta beste

gauza batzuk geratzen zaizkie. Izan ere, hilaren 17 eta 18an 1. eta 2. mailakoak Gorozikako aterpetxera doaz (Muxika), eta 19an 3. eta 4. mailakoak Amañako zine aretora joango dira 'Nani' filma euskaraz ikustera.



Herriko mugak gainditu eta mundura zabaltzeko aukera dute liburutegian Eibarko umeek. Izan ere, ingelesa lantzeko aukera egongo da saio eta tailer ezberdinen bitartez '**Mad about science**' izenburupean. Bestetik, azaroaren 15ean zapatuko ipuina ingelesez egin zen, horrela, Rebecca Place ipuin kontalariak hiru ipuin ingelesez kontatu zituen. Esan, gainera, beste hainbat hizkuntzako liburuak ekarri dituztela liburutegira, ingelesaz gain. Horrela, Eibartik mundura!

ARGAZKIAK: ...eta kitto! aldizkariako argazki artxiboa, Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

AZALEKO ARGAZKIA: Ekhi Belar.

TIRADA: 1.350 ale.

INPRIMATEGIA: GERTU koop. (Ofiati).

COPYRIGHT-A: Txikitto!


LEGE-GORDAILUA: SS-1111/96



Eibarko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria



Zu margolari



SAN ANDRES AZOKARA JOANGO ZARA? HASI
FRUTA HAUEK MARGOTZEN, GIROTZEKO...

TIGREA/MAPATXEA/TXAKURRA/KATUA
 HiPoPoTaMoA/TxorriA/ERLEa SUGAU DIkE bikatu
 hitzak zopa honetan.

A	H	I	P	O	P	O	T	A	M	O	A	I	F	K	P	U	M
T	T	I	J	Y	Z	O	T	X	A	K	U	R	R	A	R	S	E
A	I	L	P	H	O	W	B	C	P	D	E	W	Z	T	V	F	P
T	F	G	T	V	K	F	R	T	A	X	T	O	V	U	S	L	E
H	V	E	R	R	I	A	U	O	T	O	F	V	W	A	G	R	I
O	J	S	V	E	A	W	X	Z	X	J	K	P	T	E	T	T	J
T	X	O	J	I	A	L	T	U	E	M	O	Y	I	B	O	O	T
K	A	T	U	A	T	S	U	G	A	N	D	I	L	A	B	V	A

CRISTIAN HERNANDEZ



Arkitekto 10 denbor dintzenak;





Nekane Calle

Denborapasak

1. Abarintoa zeharkatu behar du Miriamek,
baina errepikatutako marrazkiak urkitu gabe.



PUZZLE A



Mikel Egozcue

Aitona, behia eta txerria

Bazen behin aitona bat Txomin izenekoa eta 82 urte zituena. Txomin txabola batean bizi zen, bere behi eta txakurrarekin. Behia Lento izena zeukan eta txakurrak, berriz, Tiko.

Txomin pobrea zen, bere txabola ondoan zuen baratzetik bizi zen. Txominek 40 urte zituenean bere emaztea etxetik joan zen bere 3 urteko alaba Norarekin.

Behin Txomin bizi zen herrian uholde handi bat egon zen eta Txomin txabola gabe gelditu zen. Kale gorrian geratu zen Lento eta Tikorekin. Orduan ia-ia hil egin zen kalean. Ez zeukanez dirurik ezin zuen janaririk erosi eta ez zuen ezer jaten. Batzuetan edaten zuen behiak emandako esnea, baina ez zen kantitate asko. Hilabete batzuk kalean pasatu ondoren, emakume batek Txomin eraman zuen bere etxera, baina Txominek ez zuen ezertaz ezagutzen.

Horregatik galderak egiten hasi ziren biak, emakumea eta Txomin:

-flabarik ba al duzu?- galdetu zion emakumeak.

-Bai, ba nuen, baina bere amak eraman egin zuen eta alaba gabe gelditu nintzen- erantzun zion Txominek.

-Nola deitzen zen zure alaba?- galdetu zion berriz emakumeak.

-Nire alabak Nora izena zuen, oso aurpegi polita zuen, zurea bezalakoa- erantzun zion Txominek.

-Nik ere Nora izena dut eta nire amak aitarengandik urrundu zidan 3 urte nituenean- esan zion emakumeak.

Orduan pentsatu zuten gauza berdin asko gertatu zitzaieela iraganean eta ADI frogara joan ziren. Egun batzuk igaro ondoren, deitu eta esan zieten aita eta alaba zirela eta oso pozik jarri ziren biak. Norak, zituen bere bi alabak aurkeztu zizkion Txomini, bata 7 hilabetekoa eta bestea urte bikoa. Gero Norak Txomini baserri handi-handi bat egin zion, eta Tiko eta Lentorekin joan zen bertara bizitzera.

Handik aurrera oso pozik bizi izan ziren eta ez ziren urrundu inoiz gehiago.



- Zelan daukazu izena?
- Eulia. Eta zuk?
- Oto.
- Oto? Zer Oto?
- Oto eulia.

Ane Morales



- Mutiko bat kaletik doa arraro ibiltzen. Mediku bi pasatzen dira eta batek esaten du:
- Nik uste dut bizkarreko mina duela. Eta besteak dio:
 - Ba nik uste dut hankako mina duela.
 - Beno, goazen galdetzerara:
 - Nik pentsatzen dut bizkarreko mina daukazula eta nire lagunak hankako mina duzula.
 - Hara, nik pentsatzen nuen puzker bat zela, baina kaka egin dut gainean.

Lucia Irigoyen

- Badakizue zergatik elefanteak ez diren ordenagailuarekin ibiltzen? Arratoiari beldurra diotelako.

Maria Cano

- Badoa Jaimito sendagilearengana eta zer esaten dio:
- Sendagile! Sendagile! Lagundu mesedez! Hiltzeko 48 minutu bakarrik geratzen zaizkit-eta! Eta sendagileak erantzuten dio:
 - Minutu bat, mesedez.

Ane Izquierdo



- Esaten dio irakasle batek ikasle bati:
- Etorri arbelera. 300 euro daukazu eta lapur batek 100 euro kentzen dizu.
 - Baina maisu! –esaten du ikasleak-. 300 euro edukitzeko beste gizon baten praka batzuk behar ditut.

Andersson Gil



Txisteak

Andre batek markesa bati deitu eta honen laguntzaileak hartzen du telefonoa. Orduan, andreak esaten dio:

-Kaixo, markesa hor al dago?

-Ez, komunean dago. Irtetzen denean esango diot deitu duzula.

Gero, markesak esaten dio laguntzaileari:

-Norbaitek deitzen duenean ez esan komunean nagoela.

Geroago... telefonoa berriro ere.

-Ring, ring...

Laguntzaileak hartu eta lehengo andrea zen berriro:

-Markesa hor dago?

-Ez, ezin daiteke ipini lanpetuta dagoelako.

Leire Quintas

Bazeuden espainiar, txinatar eta frantziar bana, eta hotel batera joaten dira. Orduan, hoteleko mutilak esaten die:

-Hiru ohe daude: sugeena, inurriena eta eskorpioiena.

Eta txinatarrak esaten du:

Ba nik sugeena nahi dut.

Frantziarrak:

-Nik eskorpioiena.

Eta espainiarrak:

-Ba inurriena nik.

Hurrengo goizean elkartu egiten dira eta txinatarrak zera dio:

-Oso gaizki egin dut lo, sugeak estutu egiten zidaten.

Frantziarrak:

-Nik ere oso gaizki egin dut lo, eskorpioiak pikatu egin zidalako.

Eta espainiarrak:

-Ba nik oso ondo egin dut lo. Inurri bat hil eta besteak funeralera joan dira.

Sara Larrañaga





- Hemen haginak ordaindu gabe kentzen dituzte?
- Lehenengo aldiz, bai.
- Eta bigarren aldian?
- Ez dakit. Ez da inor gehiago itzuli.

Elena Idigoras

- Esaten dio maisu batek ume bati:
- Zelan esaten da 'puerta' euskeraz?
- Atea.
- Eta 'puerto'?
- Ateo.

Irene Vazquez

- Baserritar batek esaten dio txerriari:
- Opari bat ekarriko dizut.
- Eta txerriak esaten du:
- Oi-oi.
- Gaur ez, bihar.

Iñigo Saiz

- Izeba, zergatik dauzkate hegaztiak lumak?
- Lumarik gabe oso itsusiak izango liratekeelako.
- Eta orduan zergatik ez dituzu zuk ere lumak jartzen?

Xabier Albizu

- Txita eta tarzan ping pong-era jolasten ari direla, Trazanek pilotakada ederra eman eta pikutara bidaltzen du pilota.
- Orduan esaten dio Txitari:
- Joan pilota hartzera.
- Pasatzen da ordubete, bi, hiru eta hor azaltzen da Txita errenka hanka bat falta zaiola.
- Esan dizut ping pong pilota hartzeko, ez king Kong-en pilotak!

Unai Martinez



T xikihoroskopoa

ARIES



Tripako minarekin ibiliko zara hurrengo egunetan, baina hortik aurrera hilabete ederra pasatuko duzu. Gainera, pertsona berezi bat ezagutuko duzu.



TAURUS

Pailazokeriak egitea oso gustuko duzula nabaria da, beti daude-eta lagunak zurekin barre egiten. Zirkoko izarra izatea pentsatu al duzu?



GEMINIS

Bihotza bizi-bizirik izango duzu hurrengo asteetan, izan ere, Cupido zure inguruan ibili da eta maitasunaren geziak gurutzatu du zure bihotza. Zeinen polita!



CANCER

Triste baldin bazaude, musika pixka bat ipini zure bizitzan. Musikak piztiak lasaitzen ditu, baina baita hildakoak berpiztu ere. Musika entzun eta hasi dantzan!



LEO

Hilabete honetan etxerako-lanak egiteko orduan hainbat arazo izango dituzu, baina lasai, behin eskolara joandakoan oso ondo ulertuko dituzu gauza guztiak-eta.



VIRGO

Zenbat alditan esan dizute zaborra zakarrontzira bota behar dela? Ingurunea zaindu behar duzu, denok eskertuko dugu hori, baita zuk ere.



Bai, Libra maitea, bai. Putzuak oso erakargarriak dira eta bertan salto egiteko gogoia sartzea normala da. Baina pentsa: egun osoa bustita egotea gustatzen zaizu?



Besteek kasu larregirik ez dizute egingo hurrengo asteetan. Izan ere, zure tontokerietaz kokoteraino daude eta ez zaituzte serio hartzen.



Ederra izango litzateke mundu osoan zehar bidaiatzea, ezta? Tamalez, ametsa besterik ez da zuretzat, baina nork daki, bete daitekeen ametsa da agian.



Dagoen eguraldiarekin eta zu horrela? Jantzi txamarraren bat gutxienez! Ez daukazu hotzik? Seguru gero gaixotu egiten zarela!



Entzungo zenuen krisia dagoela eta abar, ezta? Orduan, zergatik eskatzen diezu gurasoei hainbeste diru? Pentsa eurei dirua lortzeak lan handia ekartzen diela!



Oraindik hilabete bat falta da Gabonetarako, baina zu hasi zara opariak eskatzen. Ondo portatu zara urte osoan zehar? Ez dakit ba nik hori egia den.

WWW.NABAR.COM

Nabar hartzaren webgunea da hau. Bere etxea. Nabar hartza ipuinlaria da, eta webgune honetan aurkituko dituzu hartzkumea bera eta honek kontatzen dituen ipuin guztiak. Horrela, ipuin horietaz era askotan gozatzeko aukera luzatzen du Nabarrek. Gainera, bere ereserkia irakurri, ikusi eta entzun ahal izango duzu. 25 ipuin eskaintzen ditu Nabarrek, eta guztiak entzun, irakurri edo ordenagailura deskargatzeko aukera dago. Horrela, ipuinak bere osotasunean gozatu ahal izango dira, inolako aitzakiarik gabe. 25 ipuin izatean, gainera, istorio eta abentura ezberdinak biziarazten ditu Nabarrek. Bestetik, ipuinez gozatzearaz gain, Nabar hartzaz gozatzeko aukera ematen du webguneak, izan ere, hartza erosi daiteke bertan (panpina, noski!).



WWW.BERDE-BERDEA.NET

Ingurumen proiektu bat da 'Berde-berdea'. Horrela, naturaren garrantziaz eta bere balio ikaragarriaz konturatzeko balio duen webgunea da, eta baita naturarekin zerikusia duten hainbat kontutaz jabetzeko ere. Energia nola sortu genezakeen azaltzen digute, adibidez.

Bestalde, bioaniztasunari buruz jakin behar duguna azaltzen saiatzen dira pelikula, galdera eta idatzizko materialen bitartez, eta berdina egiten dute ura, atmosferaren kutsadura eta klima aldaketarekin. Ba al dakizu zer adierazten duen atmosfera hitzak? Ba webgune honetan duzu erantzuna. Gainera, oporraldi ekologikoagoak nola pasa ditzakezun aipatzen dizu. Webgune berdea, mundu berdea zaintzeko!



erreportajea



Zabaldu da teloia

Antzerkian aritzea edo antzerkia ikustea gustoko baduzu, zure gogo horiek asetzeko haina aukera izango duzu Eibarren. Hilero umeentzako antzerki bat egongo da Coliseoan eta, bestetik, Narruzko Zezenek antolatutako Eskolen Antzerki Erakusketa eta Antzez Artikulu eta Gidoien lehiaketa martxan daude.

Teloia ireki da eta zaila da esatea berriz noiz itxiko den. Izan ere, antzerkiak bere presentzia handitu du gure herrian, eta antzerkiak gozatzeko aukerak handiak eta askotarikoak dira. Eszenatoki gainean, atzean edo aurrean egoteko beta dago, antzerkiak bakoitzak gogoko duen moduan gozatzeko.

Urritik hasita, umeendako antzerki bana egongo da hilabetero Coliseoan, urtero egiten diren Antzerki Jardunaldietatik kanpo. Orain arte saio bi eskaini dira, bata euskaraz eta bestea erderaz, eta euskarazko beste saio bat egingo da urtea amaitu aurretik.

Kabareta eta abenturak

Agerre antzerki konpainiaren 'Haur kabaretak' ireki

zuen antzerkien denboraldi berria. Bertara hurbildu zirenek musikaz, dantzaz eta interpretazioaz gozatzeko aukera izan zuten, baina baita parte hartzeko ere. Kabaretean murgildu eta laguntasunezko istorio batez gozatu ahal izan zuten ikusleek.

Bigarrena, berriz, duela egun batzuk egin zen. 'Las aventuras de Huckleberry Finn' izenburuko liburuan oinarritutako antzerkia da hau, eta Huckleberry mutikoaren abentura ezberdinak kontatu ziren bertan.



Askatasuna bilatzeko bidaia zirraragarria.

'Karabas'

Urtea amaitu baino lehen, bestalde, 'Karabas' antzerkia ikusteko aukera egongo da. Golden Apple Quartet & Kanpingags konpainiaren lana abenduaren 26an egongo da ikusgai Coliseoan, eta bertara sartzeko 4 euro ordaindu beharko dira.

Printzesen istorioa da 'Karabas', mutiko baten eta erregearen alabaren arteko amodiozko istorioa. Hala ere, dena ez da hain

polita izango, azti maltzur batek herri guztia beldurtuta baitauka.

Narruzko Zezen


Antzerkia ikusteaz gain, antzerkilari edo antzerkigile ere izateko aukera dago. Izan ere, Narruzko Zezen taldea Eskola Antzerki Erakusketaren gainean lanean ari da. Nahiz eta hau udaberrian egingo den, eskolei zuzendu zaie euren lanak prestatzen hasi daitezten. Gogor lan egin behar baita antzezlan baten sorreran!

Bestalde, Antzez Artikulu eta Gidoientzat XXIV. Narruzko Zezen Lehiaketa martxan dago. Bertan parte hartzeko epea otsailaren 2an amaitzen da, eta lanak Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentruan entregatu daitezke.



Txikinkesta

Zein telebista saio dakazu gustokuen?



**LAURA
LUENGO.**


10 urte

'El hormiguero' da gehixen gustatzen jatan telebista saiua. Esperimentuak egitten dittue eta oso dibertigarria da. Trankas eta Barrankas gustatzen jataz asko.

**AYOUB
SAMADI.**

10 urte

'El Hormiguero' gustatzen jata gehixen. Saiuan egitten dittuzten esperimentuak eta 'efecto mariposa' atala gustatzen jataz. Oso barregarria da!




'Kutxa tontua' deitzen detse askok, baina ordu asko emoten dogu bere aurrian. Izan be, telebisiñuak eskaintza zabala eskaintzen dau, baita umiendako be.

IRENE AMARILLA.

10 urte

'Shin Chan' gustatzen jata neri asko. Barre haundixak egitten dittut saiaua ikustian. Bestela, telebisiñua ez dot asko ikusten, gabian ordu bete bakarrik.



ANDER GUTIERREZ.

10 urte

Telebisiñuan saio asko dagoz eta zaila egitten jata bat aukeratzia. Gaiñera, ez dot telebisiñua asko ikusten. Gabian pixkat, baiña asko bez.



Lorea eta Iker

Bazen behin Lorea deitzen zen neskatila bat. Berak ez zeukan aitarik eta amarik, bakarrik bizi zen. Egun batean parkera joan zen eta karro bat ikusi zuen eskina batean, eta pentsatu zuen umeren bat egongo ote zen barruan. Hurbiltzen hasi zen eta ume bat entzun zuen negarrez.

-Ez dakit zer egin, ea zer egin dezakedan. Nola ez dagoen inor berarekin, orduan nirekin eramango dut.

Etxera eramatu zuen eta berak zaindu zuen; nola ez zeukan izenik, Iker izena jarri zion, eta eguneroko biberotia eman eta parkera eramaten

zuen, baina arroparik ez zeukanez, erosketak egitera joan behar izan zen.

Ume guztiak bezala ikastolara joaten hasi zen, eta ibiltzen ere ikasi zuen, gero hitz egiten ere. Ikastolan oso ondo konpondu zen bere lagunekin, eta hortik aurrera oso pozik bizi izan ziren Iker eta Lorea.

Malen Amuategi



kirolak eibarren

ESKUBALOIA

Malumbres eta Cuturaren antzera, Eibarko umeak (5. eta 6. mailakoak) eskubaloian ari dira multikirolen barruan. Amañako eskolan biltzen dira neurketak jokatzeko eta, nola ez, Arrateko izarren antzera aritzeko.



Eibarko eskoletako 200 ume inguru ari da joan den astetik eskubaloian. 5. eta 6. mailako umeek astean birritan entrenatzen dute eta, asteburuan, Amañako eskolan biltzen dira eskolen artean neurketak jokatzeko. Eneko Garcia multikiroletako koordinatzaileak aipatzen duen bezala, "euren eskoletan edo kiroldegian entrenatzen dira astean zehar multikiroletako sei monitoreen esanetera, eta asteburuetan Amañan jokatzeko dute

Arrateko entrenatzaileek gidatuta".

Eskubaloiarekin, taldean jokatzeko beste kirolekin bezala, "elkarren arteko harremana, kooperazioa, errespetua eta taldeko lana bultzatu nahi da", Eneko Garcia-ren berbetan. Horrela, helburua umeak eskubaloia egiten "pozik egotea da".

Eskubaloiko entrenamenduetan, hasiera batean, lan analitiko bat egiten dute jokalariek: botea nola egin, paseak landu, jaurtiketak entrenatu, eta abar. "Ondoren, lan analitiko hori prakti-

kan ipintzen saiatzen gara, joko ezberdinak eginez", dio Enekok.

Umeen artean arrakasta duen kirola dela aipatzen du Enekok. "Hala ere, igartzen da nola kirola egiten hastean motibatuta dauden, eta asteak aurrera joan ahala pixka bat aspertzen direla".

Arrate eskubaloia taldea, beraz, lasai egon daiteke, eskubaloia egiteko prest dagoen jendea ez baita falta. "Kirola egiteaz gain, gure helburua umeak herriko klubeetarako baliogarriak ere izatea da". Badago, beraz, eskubaloia harronbirik herrian.



Multikirolak

Iturburuko bikote honek gustoko du kirola egitea. Orain eskubaloian ari badira ere, beste kirol bi egin dituzte orain arte, eta urtean zehar gehiago praktikatuko dituzte. Hori da Multikiroletan gehien gustatzen zaiena: kirol ezberdinak egitea.

-Irailean hasi zineten Multikiroletan. Zein kirol egin dituzue orain arte?

(Haizea): Ni igeriketan eta atletismoan ibili naiz.

(Jokin): Nik judoa eta pilota egin ditut.

(H): Igeriketa eta judoaren artean aukeratu behar genuen, eta baita pilota eta atletismoaren artean ere.

-Eta zer moduz?

(J): Egia esan, oso ondo.

(H): Bai, ondo egon da.

-Zein kirol ari zarete egiten orain?

(H): Eskubaloian hasi berri gara.

-Eskubaloiazen ostean, zer?

(H): Gero foballa eta rugbia egingo ditugu.

(J): Kontxo, nik ez nekien zein ordenatan egin behar genuen!

-Kirolaren Eguna ere ospatzen




duzue, ezta?

(J): Bai, jolasak egiten ditugu eta beste hainbat gauza. Egia esan, niri ez zait batere gustatzen egun hori.

(H): Ba niri bai! Unben edo Ipuruako anexoan biltzen gara eta oso ondo dago.

-Egiten diren





Haizea Hernandez eta Jokin Hormaetxea:

“Kirol ezberdinak ezagutu eta egiten ditugu”

kirolez gain, zein gustatuko litzaizueke praktikatzea?

(H): Saskibaloia egitea nahiko nuke.

(J): Nik hockey-a nahiko nuke egin.

(H): Ikastolan kirol ezberdinak egiten ditugu, beisbola adibidez.

- Multikiroletara-ko nola entrenatzen zarete?

(H): Astean birritan entrenatzen dugu.

(J): Nik egun bakarrean, ezin baitut birritan egin. Bestalde, atletismoan pixka bat denetarik egiten badugu ere, eskubaloia edo foballean entrenamendu zehatzagoak egiten ditugu (hankak edo eskuak landuz, gehienbat).

-Zein kirol

gustatzen zaizue gehien?

(H): Eskubaloia.

(J): Niri foballa.

Hala ere, Multikiroletan izena eman aurretik uste nuen eskubaloia kirol aspergarria zela, baina ez da horrela.


-Lagunei Multikiroletan izena emateko animatuko zeniekete?

(Biek): Bai.

(J): Kirol ezberdinak ezagutu eta egiteko aukera ematen du.



FAROL IKUSGARRIA





Etxean argitasuna edukitzea duzu gustoko, ezta? Eta zein politak izaten dira argia ematen dituzten farolak. Baina beti ez dira zuk nahiko zenituzkeen koloreekin margotuta izaten. Gaurkoan zure gustoko farola egiteko aukera duzu Txikitto!n. Argia ipini baino zuk nahi dituzun koloreak logelan izateko aukera duzu...

PAUSOAK:

- 1- Labanarekin arraultza kutxa biak behetik moztu, euren azpiko aldean, hau da, arraultzak kokatuta doazen gunea (kontuz honekin, pertsona nagusi baten laguntzarekin egin).**
- 2- Estalki lauetan nahi dituzun marrazkiak marraztu eta moztu itzazu. Ondoren, kaxen kanpoaldea nahi duzun kolorearekin margotu ezazu.**
- 3-Orain, estalki laua zuten zatien barruko aldean koloredun paper gardena itsatsi ezazu. Kaxa biak hartu,**

angeluzuzen bat egin eta zinta eransgarriarekin itsatsi.

4-Sortutako faroltxoak teilatutik zintzilikatuta dagoen bonbila baten aurrean ipini nahi izanez gero, parean dauden alde bitan (berdin da zein hartu, baina parean dauden bi izan behar dira) zulo bat egin goikaldean, bien artean haria lotu (neurria aurretik hartu behar da) eta zure faroltxoak zintzilikatzeko prest zaude!



MATERIALA:

Arraultza kaxa bi
 Labana
 Arkatza
 Pintzela
 Margoa
 Koloredun paper gardenena
 Zinta eransgarria
 Haria

JOSTAILU ZAHAR, JOSTAILU BERRI


NEREAK JOSTAILUZ ETA TRASTEZ GAINEZKA ZEUKAN BERE GELA. EZ ZEN HARRITZEKOA. IZAN ERE, ETXEKO UME BAKARRA ZEN ETA GURASOEK NAHI ZUTEN GUZTIA EROSTEN ZIOTEN. HALA ERE, NEREA NEKEZ IKUSIKO ZENUEN JOLASEAN, GAUZA GUZTIEKIN ASPERTUTA ZEGOEN. JOSTAILUAK, BADA, APALETAN ETA KUTXETAN SARTUTA ZEUDEN, BERTAN BEHERA UTZITA. BAINA EGUN BATEAN EGUNDOKO ALDAKETA GERTATU ZEN.



JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN

OLIBIA, RISKY, TXOP SUEY ETA MOHAMED


RISKYREN LAGUN KOADRILA HANDITUZ DOA, BEREN IKASGELARA ATZERRITARRAK ETORTZEN HASIAK BAITIRA. JAKINA, ATZERRITARREK OHITURA BERRIAK EKARTZEN DITUZTE, BEREN HERRIKOAK. OSO GUSTURA DAUDE DENAK. ZERA GALDETU ZION BEHIN GOMAXEK ESKOLAKO ZUZENDARIARI: "NOIZ IZANGO DITUGU IRAKASLE ATZERRITARRAK?". ZUZENDARIA MUTU GERATU ZEN.



PELLOT ETA ENPERADOREAREN BAHIKETA

GARAI NAHASIAK DIRA FRANTZIAN. NAPOLEONEN ARMADAK ERRUSIAN JASANDAKO PORROTAK HANKAZ GORA JARRI DU HERRI GUZTIA. NAPOLEON ELBA IRLARA ERBESTERATU DUTE, BAINA BERE AZKEN JARRAITZAILEEK HANDIK ATERA NAHI DUTE, BOTEREA BERRESKURATU ASMOZ. PELLOTI ESKATUKO DIOTE LAGUNTZA KONSPIRATZAILEEK, ETA KORTSARIOAK BERE ABENTURARI EHINGO DIO MEDITERRANEOKO URETAN, ARRISKUZ ETA EZUSTEZ BETETAKO ISTORIA.





ANTTON ETA NESKAK

GIZONAK ETA EMAKUMEAK OSO EZBERDINAK DIRA. ANTTON ETA NESKAK ERE BAI. ANTTONEK NABARMENDU EGIN NAHI DU. BAINA NESKENTZAT EGONGO EZ BALITZ BEZALA DA. HARROPUTZAK KANPORA. BAINA AHUL AGERTZEN DENEAN, NESKAK ATSEGINAK DIRA BERAREKIN. HORRELA DIRA GAUZAK HONDAR KUTXAN. HORRELA DIRA GAUZAK MUNDUAN.



TXARLIREN KONTUAK

TXARLIRI ASKO GUSTATZEN ZAIZKIO AZENARIOAK BAZKARITARAKO; BATZUETAN GORROTO DITU, ORDEA. KATTALIN LEHENGUSINAREKIN JOSTATZEN DA POZIK, BAINA MAIZ HASERRETUTA BUKATZEN DUTE. BEHIN, UDA BETEAN OSPATU NAHI IZAN ZITUEN GABONAK. HOLAKOA DA TXARLI. HORREGATIK DUTE HAURREK ATSEGIN.



EINSTEIN ZIENTZIALARI JENIALA

TXIKITAN, TONTO SAMARRA ATERAKO OTE ZEN BELDUR ZIREN GURASOAK. GREZIERAKO IRAKASLEA ZIUR ZEGOEN EZ ZELA SEKULA EZER EGITERA IRITSIKO, ETA UNIBERTSITATEA AMAITUTAKOAN, EZIN ZUEN LANIK AURKITU. BAINA ZIENTZIALARI KURIOSO, MUSIKARI ETA BAKEZALE HARK SORPRESA ASKO ZITUEN GORDETA, ETA BERE TEORIEKIN LANPETUTA IBILI ARREN, MUNDU HOBE BATEN ALDE EGITEN ZUEN LAN. EZ ZUEN INORK PENTSATUKO HISTORIAKO JENIO NAGUSIA BIHURTUKO ZELA...

**EIBARKO
LIBURUDENDETAN
SALGAI**

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak

Piraten altxorraren bila etorriko dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots Eibarrera abenduaren 13 eta 14ean. Gainera, altxor hori Eibarko ume guztiekin elkarbanatu nahi dute, denok gozatzeko! Salto, txistu, dantza eta abesteko gogoarekin dator hirukotea... Ondo pasatzeko prest al zaude?

-Zer sentitzen duzue Eibarren eskainiko duzen ikuskizunaren aurrean?

Porrotx: Kili-kiliak sentitzen ditugu sabelean... eta txistu egiteko gogo.

Marimotots: Pozik gaudenean txistu egiteko gogo sartzten zaigu, eta hori erakutsiko diegu Eibarko umei.

Pirritx: Saltoka hasten gara eta jolasean ere segituan.

-Beraz, gogo handia duzue?

Po: Bai. Gainera, gure helburua izango da Eibarko ume guztiak pirata bihurtzea. Euskal pirata bihurriak bihurtzeko frogatik batzuk gaitu beharko ditugu. Gero, altxor bat egongo da denontzat...

M: Dena ez kontatu Porrotx!

Po: Beno, ba horren inguruan izango dira kantak, jolasak, frogak...

M: Eta gizon maltzur baten ezusteko bisita izango dugu, Petrol izenekoa. Altxor pilatzaile maltzurra da.

-Saltoka, txistuka eta jolasean ibiliko zaretela esan duzue. Eta abestiak zer?

Po: 20 kantu grabatu ditugu, eta horiek abestu eta dantzatuko ditugu.

-Pirata artean ibiliko gara, beraz.

Pi: Bai.

M: laz mototsik gabe azaltzen nintzen, baina orain ile ederreko pirata bat eginda etorriko naiz.

-Sendatu zara, Marimotots?

M: Bai.

Po: Azken urtea ospitaletik etxera,



etxetik ospitalera eman dugu Marimotots gaixorik zegoelako, baina sendatu zaigu jada, ilea hazi zaio eta mototsa izango du laster!

-Marimotots ospitalean zegoen bitartean ondo portatu dira Pirritx eta Porrotx?

Pi: Oso ondo portatu gara! Oso lagunak gara eta behin elur panpina eraman genion ospitalera, marrazkiak, argazkiak ere, ordenagailuz txateatzen genuen, piratetara jolasten ginen gelan...

Po: Gainera, eguneroko gauza txikiak, irrifarre bat, keinu bat... oso handiak direla konturatu gara. Daukagunarekin disfrutatzen ikasi dugu.

-Zein altxor izango da Eibarko umeek aurkituko dutena?

Po: Aurreratu dezakegu ez dela lurpean dagoen zerbait. Guk denok partekatzen dugun altxor bat da.

Pi: Ezpainetik ezpainera.

Po: Zer da?

Denek: Muxuaaaa!

Po: Oso ondo. Eta zer gehiago?

Denek: Euskaraaa!

Po: Has daitezela ezpainak prestatzen Eibarko umeak.

-Eibarko umeak zuek noiz etorri zain daude...

M: Gu ere hara joateko irrikitan gaudela!

Po: Gero, azpimarratuko nuke Su Ta Gareko Aitor Gorosabelek azken diskoan abesti bitan partehartzea izan duela. Patakon pirataren haragian sartu da. Eta guk esaten dugun moduan: Patakon, daukanari kendu, eta ez daukanari emon!

M: Esan, gainera, marrubizko musuak banatuko ditugula.

Po: Txokomarrubizko musuak katilukadaka!

ZOKETA BEREZIA
Pirritx Porrotx
Marimotots

“PIRATAK” saioko 75 kartel ditu txikitto!k zozketatzeko...

Bete hemen zure datuak eta parte hartu zozketa honetan eta bertsolaritzako lehiaketan batera...

Izena:

Ikastetxea:

Maila:

Bertsotan lehiaketa

BERTSOZALE ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN, IKASTURTE HONETAN LEHIAKETA BEREZIA IZANGO DUGU. HEMEN DITUZUEN BERTSOAK BEHAR DEN MODUAN BETE, ASMATU ZEIN DEN BEHARREZKO OINA. BIDALI TXIKITTO!RI ETA ZOZKETA EGINGO DUGU PARTE HARTZEN DUZUENEN ARTEAN.


HILABETEKO IRABAZLEA



UNAI NOBILLO



EROGLIFIKOAK; ZEIN BERTSOLARI DIRA HAUEK?



Izena:

Telefono zenbakia:

ayerbe

liburudenda

zezenbide 9

ABESTU BERTSO HONEK

KOPLA BERRIAK **JORGE OTEIZARI JARRIAK**

Oteiza jaio zela
ehun urte dira,
orain jarri gaitezen
berari begira.

Medikuntza ikasia
hamazortzi urtekin,
guk ere asko ikasi
dugu berarekin.

Hamalau apostolu
Oteizak eginak,
Arantzazuko elizan
politak ta finak.

Garai batean egin
zituen kuboak
gero deitu zienak
metafisikoak.

Guretzat oparia
eskultura izan zen,
Eibarko txerri batzuk
dena hondatu zuten.

Alfa-Arten daukagu
gure eskultura,
ea berritzen duten
nahi dugun modura!

Doinua: Ikusi nuenean.

HONDARTZAN



AMATERA